



## ZORTZI ARGAZKI FINALISTAK, BIHAR

Bukatu da XII. Argazki Lehiaketan parte hartzeko epea, argitaratu gabe zeuden irudiak ikusi ahal izango dituzue gaur 4-5

TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Larunbata  
2010-10-02

VIII. URTEA 2.089. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

## «Txapelketa batean lortzen dudan lehen postu ona da; oso pozik nago»

**IBARRA** Ibarra Racing-eko Koldo Alonsok bigarren egin du bukatu berri den Michelin Power Cup Txapelketan

**ERRONKA** Oraindik ziurtatu ezin badezake ere, datorren urtean Txapelketa berean parte hartu nahi du gidariak



Koldo Alonso gidari ibartarrak denboraldi bikaina egin du. HITZA

## Datorren urteko egutegian parte hartzeko aukera

**ANOETA** Udalak, urtero bezala, argazki lehiaketa antolatuko du; irudi horiekin osatuko dute egutegia

## Ikastolara doan bidea berrituko dute

**IBARRA** 70.000 euroko aurrekontua dute lanek; zorua eta hiri altzariak konproduko dituzte

BEROGUZKI S.L.

Hergatzen a Berokotzen a Gato a Aline apakiten  
Eguzki plaket a Mastelamintak a Gatzak isatxakontak  
Kantxakak kalderak

Jai zoriontsuak  
opa dizkizue Irurar  
guztiei!

Tel. 943 943 22 22  
Web. 943 943 222  
Berroguzki @ berroguzki.net  
Herrera, 20 48911 MUSA

## Ekitaldi ugari izango dira Nazioarteko Abesbatza Lehiaketaren hilabetean

**TOLOSA** Erakusketa eta musika ekitaldiak nagusituko dira hilabete honetan zehar; urriaren 29tik azaroaren 1a bitarte luzatu da abesbatzen topaketa z

**SEGORE ETXE BERRI**

**SANTA MARINA**  
Tel.: 943 58 09 76 - Mugikorra 610 460 751



Hodei Truk abesbatzakoek 'Hodei Pop' lana eskainiko dute Tolosan, urriaren 17an Leidorren. HITZA

## Urriarekin batera etorri da Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa

### ERREDAKZIOA

Udazken ukituko urriko kultur ekitaldiak eta jarduerak gainezka etorri dira. Erakusketak eta musika nagusituko dira Tolosan ondorengo egunetan.

Erakusketak lau gunetan antolatuta dituzte: Aranburu jauregian, Topic-en, Gko Galerian eta Kultur Etxean. Azken honetan, Aranzadik *Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasunak berreskuratuz* izene-

koa jarriko du ikusgai, hilaren 21etik azaroaren 1era. Bonbereneak beriz, sutan jarraitzen du. Hilabete honetan 16 talde igaroko dira bertatik. Musikan arloan ordea, albiste nagusia Nazioarte-

ko Abesbatza Lehiaketa da. Urriaren 29an hasi eta azaroaren 1ean amaituko da abesbatza txapelketa. Leidorren bezala, herriko beste hainbat txokotan ere entzun ahaliko dira ahotsik ederrenak.

### » EGITARAUA

**Erakusketak, Aranburu jauregian**  
\*Bisita-orduak: 17:30etik 20:30era, jaiegun eta astelehenetan izan ezik.

- **Azaroaren 13a bitarte.** Inestable, Gko Galeriararen produkzioa.
- **Urriaren 9a bitartean.** Tolosako Egutegiko argazki lehiaketako irudiak.
- **Urriaren 15etik azaroaren 13ra.** Ignacio Elizaranen pintura.

### Topic-en

\*Bisita-orduak: Astegunetan 11:00-13:00 eta 17:00 - 20:00. Asteburu eta jaiegunetan: 12:00-14:00 eta 17:00 - 20:00

- **Urriaren 5etik aurrera.** Wayang Golek, Indonesiako txotxongiloak.

### Gko Galerian

\*Bisita-orduak: 10:00-13:00 eta 17:00 - 20:00, asteartetik igandera.

- **Urriaren 8tik aurrera.** Ertza, The Singlefin Rebels & The Badsurfers Club.
- **Urriaren 26tik aurrera.** Irudiak, Amaia Gomez.

### Kultur Etxea

- **Urriak 18.** Odol emailen hilero-ko odol ateratzeak.
- **Urriak 18.** AGIFES elkarteak antolatuta, *Retrats* filmaren emanaldia eta debata, 18:30ean.
- **Urriak 21 - Azaroak 18.** *Hildakoak hilobietatik ateraz, duintasunak berreskuratuz.* Aranzadiren erakusketa.

### Ikuskizunak eta musika

- **Urriak 8.** *Los Golden en blanco y negro*, Golden Apple Quartet Leidorren, 20:30ean.
- **Urriak 9.** *DRE*, Damini house of culture Topic-en, 20:00etan. Txotxongiloak eta dantza garaikidea.
- **Urriak 17.** *Hodei Pop*, Hodei Truk abesbatza Leidorren, 12:00etan.
- **Urriak 22.** *Etzi*, Dar Dar produktzioak, 20:30ean. Antzerkia.
- **Urriak 23.** Erkki Pohjolaren omenez, Et Incarnatus orkestraren ekimena Leidorren, 20:00etan. Kontzertua.
- **Urriak 23.** *La leyenda del farol*. Teatro Plusen argi eta itzalen antzerkia Topic-en, 18:00etan.
- **Urriaren 29tik azaroaren 1era.** Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa Leidorren. [www.cittolosa.com](http://www.cittolosa.com)

### Besterik

- **Urriak 7.** Ipuin Txokoa: *Gurasoak ere ipuin kontari*. Miriam Mendozako Errota haur liburutegian. 18:00etan.
- **Urriak 9.** *Kortxea doktoarearen abenturak*, *Musika Tresnen Fabrika*. 18:00etan. Tolosa&CO, Tolosako dendariet antolatutako dinamizazio kanpaina Zerkausion.
- **Urriak 23.** *Tor eta Eriz magoak*. 17:30ean eta 19:00etan. Tolosa&CO, Tolosako dendariet antolatutako dinamizazio kanpaina Zerkausion.
- **Urriak 9-12.** Berazubi auzoko jaiak.
- **Urriak 9-17.** San Esteban auzoko kultur astea.

- **Urriaren 10etik aurrera.** *Historia eta oroimena*, Tolosa eta Gerra Zibila ekimeneko ekitaldiak.
- **Urriak 11-17.** Kultura gorraren jaialdia. <http://gaintitzen.blogspot.es>
- **Urriak 12.** Tolosako XXIII. Kross herrikoa.
- **Urriak 16.** Tolosako Musika Bandaren udazkeneko kontzertua. Zerkausion 19:30ean.
- **Urriak 28.** *Fusilatua*, Francisco Etxeberriaren hitzaldi proiektioa. Batzar aretoa, 19:30ean.
- **Urriak 30.** Tolosa Goxua azoka.
- **Azken larunbatean.** Tolosa Kantari. Agirre doktoarearen plazan, Tontokalen, 12:00etan.

### Bonberenea

- **Urriak 2.** 22:30etan, Vendetta eta Disaster Krew.
- **Urriak 8.** 22:30etan, Natural Project eta Lauroba
- **Urriak 9.** 22:30etan, Kerobia.
- **Urriak 15.** 22:30etan, Seiren eta Petti.
- **Urriak 16.** 22:30etan, Jon & Sugramas eta The Riff Truc-kers.
- **Urriak 22.** 22:30etan, Never Surrender.
- **Urriak 23.** 22:30etan, Las culebras eta Surfin Kaos.
- **Urriak 29.** 22:30etan, Xarma.
- **Urriak 30.** 22:30etan, Tulsa (Madrid).
- **Urriak 31.** 22:30etan, MR. Pro-tector (Frantzia) eta Sacco.

## K Kirol jarduera

### Tolosan, gaur

#### Futbola

- Berazubin, 16:30ean, Erregional Ohorezko Maila: Tolosa CF-Berio.
- Usabalgo futbol zelaian, 09:30ean, infantil txikiak: Tolosa CF-Euskalduna.
- Usabalgo futbol zelaian, 11:00ean, kadete lehen maila: Tolosa CF - Intxurre.
- Usabalgo futbol zelaian, 12:30ean, kadete ohorezko maila: Tolosa CF-Lagun Onak.

#### Saskibaloia

- Usabalgo goiko kantuan, 12:00etan, kadete mutilak: Take Tovar - Epi Kris ISB.
- Usabalgo goiko kantuan, 16:00etan, seniorrak: Take Tovar - Irun.
- Usabalgo goiko kantuan, 18:00etan: Bide Bide Ibiza- Mikeldi.

#### Eskubaloia

- Usabalgo beheko kantuan, 16:00etan, jubenilak: Tolosa-Urola.

#### Areto futbolak

- Usabalgo beheko kantuan, 18:00etan: Laskorain-Idiazabal.

### Tolosan, bihar

#### Futbola

- Usabalgo futbol zelaian, infantil- len arteko lehia, 10:00etan: Tolosa CF - Idiazabal.

## Laburrak

### Udalbiltzaren aldeko elkarretaratzea 12:00etan

**POUMKA** ■ Udalbiltzaren aurkako epaiketarak aurrera jarraitzen du Espainiako Auzitegi Nazionallean. Auzipetuei elkartasuna azaltzeko asmoz, Udalbiltzaren aldeko sostengu taldeak elkarretaratzea egingo du gaur 12:00etan, Tolosako udaletxearen aurrean. Sostengu taldeak eskualde guztira deialdia luzatu dute. Udalbiltzari babesa azaltzeko elkarretaratzean parte hartze gona bidatu dituzte herritarrek.

### Gipuzkoako Txapelketaren partidak gaur Beotibarren

**PILOTA** ■ Gipuzkoako Txapelketaren baitan pilota partidak jokatuko dira gaur Tolosako Beotibar pilotalekuan. Jaialdia 11:00etan hasiko da eta Errera Saiazeko bikote bertan egongo dira, besteren artean. Senior mailan Mugika eta Galarraga lehiatuko dira, Le-gazpiko bikotearen aurka. Ondoren, bigarren partidari, Apezetxea-E. Galarraga irtengo dira kantzara. Hauek Ilunpeko bikotea edukiko dute aurrean, senior mailako partidari.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Udalak antolatuta martxan da anoetarren Argazki Lehiaketa

**Anoeta** » Argazkiak aurkezteko azken eguna hilaren 22a izango da. Taldeka edo bakarka parte har daiteke.

### ERREDAKZIOA

Urtero bezala, Anoetako Udalak 2010eko Argazki lehiaketa antolatu du. Eta oinarriak jada prest dituzte. Jakina den moduan, argazki lehiaketako argazki saridunek osatuko dute udalak kaleratuko duen 2011ko egutegi berria.


Lehiaketan parte hartu ahal izateko, Anoetan erroldatuta egon behar da. Bakarka nahiz taldean aurkeztu ahal izango dira.

Aurtengo gaia, *Txapela buruan, ibili munduan* izango da. Argazki-kopuruari dagokionean, gehienez ere, lehiakide edo talde bakoitzak hiru argazki aurkez ditzake.

### Nola aurkeztu argazkiak

Argazki lehiaketa parte hartu nahi dutenek, argazkiak paper fotografikoan aurkeztu beharko dituzte, 13x18 neurrian eta era horizontalen (argazki bertikalik ez da onartuko).

Bi kartazal aurkeztuko dira: kartazal batean argazkiak sartuko dira, eta argazki bakoitzaren atzeko aldean lehiakidearen edo taldearen goitizena bakarrik idatzi be-



lazio lehiaketan parte hartu zuten argazkietako batzuk. HITZA

harko da. Bigarren kartazalaren kanpoaldean aukeratutako goitizena idatzi behar da, eta barruan honako datuak sartu beharko dira: izen-abizenak, kontakturako telefono zenbakia, argazkia non atera den eta bertan zer ikusten den.

Argazkiak aurkezteko azken eguna urriaren 22a izango da, eta Anoetako udaletxean utziko dira.

### Sariak eta oharrak

Argazki lehiaketan parte hartzen dutenen artean sariak banatuko dira. Udalak, 8 argazki sarituko ditu eta argazkiak Udalaren 2011. urteko egutegian ateratzeaz gain, argazki bakoitzaren egileari (persoia edo taldea) 50 euro emango

zaizkio. Sariak emangabe gertaitezke, argazkiek behar den maila erakusten ez badute. Eta Udalak saridun guztiei argazkiak eskatuko dizkie formatu digitalean edo negatiboetan. Gainera, Udalak erakusketa egingo du argazki guztietan Abraham Olanoko kiroldegian azaroen izango den Kultura eta kirol Astean.

Ohar batzuk ere eman nahi izan dituzte: argazkien atzealdean idazteko, errotulagailu berezia erabiltzea aholkatzen dute. Edo, bestela, etiketa batean idatzi eta, ondoren, etiketa argazkiari itsastea. Eta bukatzeko, argazkian bertan ez dadila, ahal bada, datarik azaldu.

## Modu eraginkorrean gidatzeko ikastaroa

**Villabona** » Kontsumo gutxitzeko eta norberaren segurtasuna hobetzeko da doako ikastaro hau.

### ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak, Ingurumen Batzordearen eta Bengoetxea Auto-Eskolaren bidez eta EEEren laguntzaz, modu eraginkorrean gidatzeko ikastaroak antolatu ditu.

Helburuak «gidatzeko kultura berri bat ikastea, kontsumo gutxitzea eta bolantearen aurrean norberaren segurtasuna hobetzea» izango dira. Doan izango dira. Taldeak osatzen dituzten pertsona kopuruaren arabera, ikastaroak gehienez 4 ordukoak izango dira. Ikastaro teoriko-praktikoak dira.

Baldintzak eta ordutegiak jakiteko, Bengoetxea Auto-Eskolara jo behar da. Villabonako telefono zenbakia 943 69 00 57 da eta Andoaingoa, berriz, 943 59 44 06.

## Urteroko ikastaroak urritik aurrera

**Villabona** » Udalak ikastaroak antolatu ditu; zaharberritze aplikatua, egur lanketa eta haur zein helduentzako pintura.

### ERREDAKZIOA

Villabonako Udalak, azken urteetan bezala, aurten ere kultur ikastaroak antolatu ditu. Izena emateko azken eguna hilaren 8a izango da eta ikastaroak jarraian hasiko dira.

Ikastaroen artean, egur lanketa, zaharberritze eta arte aplikatua, helduentzako zein haurrentzako pintura daude. Egur lanketaren kostua, 160 eurokoa da. Zaharberri-

tze eta arte aplikatuaren kasuan, 115 euro ordaindu beharko dira.

### Helga Massetani izango da pinturako irakaslea

Helduentzako pintura ikastaroa-erengatik 87 euro ordaindu beharko da eta haurrentzako pinturak, 67 euroko kostua izango du. Azken bi ikastaroean, Helga Massetani izango da irakaslea eta ikastaroak Larrea auzoko 20. zenbakian emango dira.

Izena udaletxean eman beharko da, idazkaritza bulegoan. Eta informazio gehiago jaso nahi izanez gero, horretarako aukera Villabonako Udalaren harrera zerbitzuan izango da. Edota 943 69 21 00 telefono zenbakira deituta.

## 'Nork ikusi du Dultzinea?' haurrentzako ikuskizun berria estreinatuko da

**Villabona** » Igandean, Gurea Antzokian izango da 17:00etatik aurrera. Maite Agirrerren lan berria da.

### ERREDAKZIOA

Igandean, urriaren 3an, Maite Agirrerrek, Gurea Antzokian haurrentzako lan berria estreinatuko du. Miguel de Cervantesen liburuaren pasarterik esanguratsuenak islatzen ditu, *Nork ikusi du Dultzinea?* antzezlanak.

Maite Agirrek idatzia da eta Agerre Teatroaren ohiko lankideak biltzen ditu; Ainhoa Pineda, David Azurza (kontratenorea), Amaia Corral (txalapartaria) eta Ines Martinez de Iturrate (txo-txoingilo-antzezle eta musikaria), besteak beste. On Kixoteren istorioa oinarri hartuta, haurren partaidetza bultzatzen dute.

17:00etan hasiko da eta 4,50 euro balio du sarrerak.

## Maroko hobeto ezagutzeko aukera

**Villabona** » Gaur eta bihar Aljibean 10:00etatik 20:00etara egongo da zabalik; argazkiak, artisau lanak, tea... izango dira.

### ERREDAKZIOA

Villabonako Udaleko Kultura batzordeak, Foru Aldundiaren laguntzarekin batera, *Maroko Tour*

erakusketa jarri du herrian. Maroko hobeto ezagutzeko aukera eskaintzen du.

Gaur eta bihar, 10:00etan zabalduko ditu ateak eta 20:00ak bitarte zabalik egongo da. Estreinu berriak Aljibean egongo da. Argazkiez gain, artisau lanak, musika berebera... izango dira. Eta gainera, Maroko bertako tea eta gozoko dastatzeko aukera ere eskainiko dute.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUA

■ **Autokarabana.** 6 pertsonentzako autokarabana alokairuan hartuko genuke Eguberrietatik Errege Egunaren arteko egunetan. Interesatuek deitu: 647 97 88 45.

### LANA

■ **Zerbitzaria.** Lekunberriko jate-txe batek asteburuetan eta jaiegunetan lan egiteko esperientzia-

dun zerbitzaria behar du. Interesatuek deitu 659 01 52 47 telefono zenbakira.

■ **Haur zaintzailea.** Etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko emakumea behar da. Interesatuek deitu 600 86 95 04 telefono zenbakira.

■ **Etxe-garbitzailea.** Neska arduratsua lan bila dabil etxeko lanak egiteko. Interesatuek deitu: 629 10 29 38 telefono zenbakira.

Liburua: **25€**  
DVDa: **15€**  
Liburua + DVDa: **30€**  
Egin eskaera **urriaren 17a** baino lehen:  
943-30 43 45  
harpidetza@berria.info  
Aukera ezazu, BIZI euskaraz **berria**

# ZORTZI FINALISTEN ZAIN

**XII. HITZA Argazki Lehiaketa**» Bukatu da jada argazkiak bidaltzeko epea; bihar bertan zortzi finalistak argitaratuko ditugu.

**ERREDAKZIOA**  
Lehenik eta behin eskerrak eman beharrien gaita, izan ere, XII. HITZA Argazki Lehiaketan argazki asko jaso ditugu, 89 guttira. Orain TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA HITZA-ko epaitzailearen txanda da jasotako argazki gutxiengatik 8 onenak aukeratu beharko ditugu. Bihar bertan argitaratuko ditugu aukeraturako irudiak eta harpide-dunek astelehenean ostiralerara bitarte (urriak 4-urriak 8) izango dazue aukera gehiengustatu zaizuen irudia aukeratzeko. Horretarako argazkiak@tolosaldeahitza.info helbidera klotzi dezakezue eta bertan argazki bakoitzaren kokatze irudiera dituzuen zenbakia eta harpidetuen kodea eman. Telefonoz ere egin dezakezue (943 65 56 95).  
Datorren igandean, urriak 10, argitaratuko ditugu irabazleak.



Alegiako eta Tolosako hainbat gaste Shangai, Pekin eta Thailandian izan ziren udan. ANNA GARCERAN, ANITA GARCEN



New Yorkeko auto batean EHT7. KEI OHA



Agulle du Midit ateratako argazkia. LORENZUAZOLA



New Yorkeko auto batean EHT7. KEI OHA



Vienako parke botaniko bati ateratako argazkia. WALTER OJEBE



Bosnia-Herzegovinan gerra ahaztea zaila da. ANNA BARTOLOME



Notredametik Parisko biotarik epollitenak. ANTONIO SANJOSE



Wadi Rum (Jordania) basamortuaren gainean. SANTI KARRERA



Hau ere Wadi Rum basamortuan aterata dago. CARMEN ERASO




Bidarteko hondartzak. JON GARCIA



New Yorken izan zen Amal. MALEN



Donostiako Kontzikako pasalekutik abuztuaren ateratako argazkia. ANTON GARCIA



Donostian ateratako argazkia. LORENZUAZOLA



Donostian ateratako argazkia. LORENZUAZOLA




Marokon, basamortu erdian. ANITA GARCEN




Donostiako San Joan SUB. ANITA GARCEN



Landetan ere ilunabar ederak ikusi daitezke. NEIRA ARBETO ETXABARRAZOLA



Cerdeñako udako irudia. MAIRA




Kabo Berdeko irudia. MIKEL



Najako Ilunabarra. CARLA ROSADA



Bolbiako Tiñaka lakutik ateratako argazkia. LORENZUAZOLA



New Yorken eraikiharen beldur. NEIRA ARBETO ETXABARRAZOLA



Bidarteko hondartzak. JON GARCIA



Euskal Herriko Ilunabarra. NEIRA ARBETO



Txindoki eta ondoan Ontzagatzelu udako egun eguzkitu batean. MIKEL OTAZO

## 70.000 euro inbertituko dituzte Ikastolako bidea konpontzeko

**Ibarra** » Mugikortasun Iraunkorraren Planaren ildoetara egokitzeko egingo dituzte berritze lanak.

### ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak Uzturpe ikastola aldera igotzen den bidea konpontzea eta egokitzea aurreikusi du, bertarako irisgarritasuna hobetu eta ikasleei nahiz gurasoei ibilgailu pribatuaren ordez, oinez erabilteza bultzatzeko.

«Neurri hau bat dator Udalak sustaturiko Mugikortasun Iraunkorraren Planak defendatzen duen helburuarekin», argitu du Udalak.

Egingo dituzten lanek 70.000 euro inguruko aurrekontua dute, eta bidearen zoruan eta bere inguruan erabateko konponketa eta egokitzapena egitea aurreikusten dute. «Hala bidearen zoruan dauden zuloak konponduko dituzte, hondatutako hiri altzariak ordezkatu eta bidearen inguruak ere txukunduko dituzte», argitu dute.

**Ikastetxera «erosotasun handiagorekin joatea» helburu** Bide honen gaur egungo erabiltezaileek beren baldintzak hobetuta ikusi eta ikastetxera erosotasun handiagorekin joatea da Udalak lortu nahi duen helburua. «Ibarrako Udalak, halaber, zera lortu nahi du, bide hori gaur egun erabiltzen ez duten ikasleek eta gurasoek ibil-

gailu pribatua etxean utzi eta erabiltzen hastea», gaineratu dute udal ordezkariak.

Horiek horrela, «zarata eta airearen kutsadura murriztera bideratutako neurriak bultzatuko ditu Udalak sustatzen duen Mugikortasun Plan Iraunkorrean jasota daogoen bezala, betiere herriaren ingurumenarekin konprometitutako ohiturak bultzatzeko eta udalerrira printzipio hauetara egokitzeko asmoarekin».

«Uzturpe ikastolara doan bidea 1998an Tolosaldean ospatutako Kilometroetako edizioko ibilbide bat izan zen eta urte hauetan izandako erabilera kontuan hartuta, guztiz gomendagarria da erabateko konponketa egitea», gogoratu dute.

## 'Kontalaria' egitasmoko kamioia Tolosatik ere igaroko da

### ERREDAKZIOA

Eusko Jaurlaritzak abiarazitako *Kontalaria* Tolosatik igaroko da. Egitasmoaren azken xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko 20 herritatik igaroz horietako herritarren parte-hartzearekin ipuin kolektiboa, elkarreraginezkoa eta ikus-entzunezkoa osatzea.

Blanca Urgell Kultura sailburuak abiarazi zuen *Kontalaria* orain egun gutxi da datozen egunetan, Tolosarekin batera, Bilbo, Irun, Donostia, Zarautz, Deba, Beasain, Eibar, Durango, Arrasate, Oñati, Vitoria-Gasteiz, Laudio, Galdakao, Barakaldo, Getxo, Bermeo, Mungia, Gernika eta Lekeitiotik igaroko da. Egitasmoa aurrera eramateko kamioi bat ibilkero da herri batetik bestera asterbururo.



'Kontalaria' ren kamioia 20 herritatik pasako da. HITZA

Kamioi hori ipuina kontatzeko espazio ludikoa izango da. Barnealdean, kontu kontari jarduteko pantaila eta bideo kamera izango ditu, eta espazio horretan gauzatu-ko da ipuin kolektiboa.

Kanpoko animazioaren bitartez, parte-hartzea bultzatuko da eta erredidoreak funtzionamendua ermekanika argituko du. Au-

rreko parte-hartzaileak kontaturiko istorioa erakutsiko zaio partaideari aurrekoaren kontakizunarekin jarrai dezan.

Azkenik, ikus-entzunezko teknikiari, aurrez markaturiko irizpideak erabiliz, ipuina gauzatu-ko du. Haur nahiz gazte, heldu nahiz adineko, guztiak har dezakete parta-te egitasmoan.

## Ekonomi jardueren eta ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko epea irekita

**Ibarra** » Udala hasi da jada 2010 urteari dagokion kobraketak egiten, bi kasuetan azarora arte dago horretarako aukera.

### ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak 2010eko urteari dagokion Ekonomi Jardueren gaineko zergak eta Ibilgailuen Sarre-rari dagokion Tasak kobratzen hasi da. Lehendabizikoari dagokionean, zergak ordaintzeko berrondatezko epea azaroaren 10ean amaitzen da. Ordainketa egiteko, ibartarrek Banku eta Aurrezki Ku-

txa laguntzaile izendatuetan egin beharko dute. Bestalde, helbideratutako ordainketak azaroaren 10ean bideratuko dira. Hala, ohar-tarazten dute, hilaren 20rako ordainagria etxean jasotzen ez dutenek, udaletxeko zerga bilketa bulegoan eskatu beharko dutela. Ordainketa egiteko epea bukatu ondoren, kobratzeak premiamenduzko prozeduraz egingo dituzte, berandutza interes eta guzti, eta sortuko balira, kosteak ere bai.

Ibilgailuen tasari dagokionean, azaroaren 2ra arte luzatuko da ordaintzeko epea azaroaren 10ean amaitzen da. Ordainketa egiteko, ibartarrek Banku eta Aurrezki Ku-

## Laburrak

### Eskualdekoak lehian Trontza Txapelketan

**TOLOSA** » Maila Nagusiko Euskadi-ko Trontza Txapelketako gizezkoen finala jokatu da gaur. Igan-tziko pilotalekuan izango da lehia 18:00etan. Bertan eskualdeko hiru bikote lehiatuko dira: Andoni Rezabal (Aia) eta Aitor Rotetak (Alkiza) osatutakoa; eta Unai Iraola (Ikaztegieta) eta Jokin Garmendiarena (Baliarrain).

### Kultur lantegietan izena emateko epea zabalik da

**IBARRA** » Hastear diren 2010-2011 ikasturteko hainbat kultur lantegietan oraindik ere lekua geratzen denez, interesa dutenek oraindik ere badute izena emateko aukera. Goizetan, 10:30etik 13:00etara eta arratsaldetan, 15:30etik 21:00etara egin daiteke matrikula Benito Izagirre kultur etxean.

### Cespa-Euskadi taldea utzi du Leire Olaberriak

**IKAZTEGIETA** » Leire Olaberria ikaztegiarrak pistako txirrindularitza-ko Cespa-Euskadi taldea utzi du. Txirrindularia izan da taldea uzteko asmoa plazaratu duena. Hemendik aurrera berak eta bere prestatzaileak sortu duten taldean ariko da. Ikaztegieta txirrindulari-riak 2012an Londresen jokatu-ko diren olinpiar jokoak prestatu nahi ditu eta horretara bideratuko ditu hurrengo bi denboraldiak.

### Ate irekien saioak jarduera berriak ezagutzeko

**IBARRA** » Belabieta kiroldegian jarduera berriak antolatuko dituzte. Horregatik, gertutik ezagutzeko, ate irekien saioak egingo dituzte hilaren 4tik 15era bitarte. Multifitness eta bosu-gap dira probatu ahal izango diren jarduerak.

## Hilberriak

### JOSE ANTONIO GARMENDIA AMONDARAIN JAUNA

Atzo hil zen, 80 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena lortu ondoren.  
- Golan bego -

Bere emaztea: Jesusa Izagirre; anai-arrebak: Roberto (†) eta Maritxu, Andres eta Nieves, Juanita eta Jesus, Arantxa (†) eta Patxi, M<sup>o</sup> Carmen (†), Periko eta Valen, Santos eta Pakita, M<sup>o</sup> Jesus, Joakin eta Kontxi; ezkon anai-arrebak: Jose Antonio eta Bernarda, Josetxo (†), Maria eta Jose (†), Jacinta, Severi eta Jose, Jose Mari eta Maritxu (†); ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde doloiz bat eskatzen dituzte eta arren etor zaitzetea: GAUR LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIRETAN Tolosako SAN FRANCISCO parroki elizan egingo den hileta. Aldez aurretik, mila esker.

Helbidea: Errementari kalea, 22-1

OHARRA: Gorputz beldu Tolosako ORIA TANATORIOAN (Usabal poligonoa, 12B) egingo da gaur larunbata goizeko 11:30ak arte.

**TOLOSAN,**  
2010eko urriaren  
2an

### FERNANDO ARRIETA IZTUETA

Betiko gure Fernandok urrutira joan arren argia ematen digu sentipenarekin

zita dugu gauetan ilunabarrean gora begira berriz gau oskarbian izar argi honek liluratuko gaitu egun berezietan elkarrekin ospatuz

**Amia-Mirari**

Meza BIHARRI, IGANDEA, eguerdikoa hamabi eta erdiatan Ordiziako Santa Maria parroki elizan izango. Aldez aurretik, mila esker.



**ORDIZIA**  
2010eko  
urriaren 2a

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Bigarren egin du Koldo Alonsok Michelin Power Cup txapelketan

**Ibarra** » Denboraldiko azken lasterketa Alcañizeko Motorland zirkuituan jokatu eta gero txapelondorde geratu da.

## ERREDAKZIOA

Alcañiz (Teruel) zirkuituan lehia zuen pasa den asteburuan Ibarra Racing taldeko Koldo Alonso, Michelin Power Cup txapelketa ixten zuen azkeneko lasterketan. Bertan 5. geratu zen eskualdekoa, eta honekin, podiumeko txartela eskuratu zuen, sailkapen nagusian 2.postua lortuz Series 600 mailan.

Denboraldi osoko lasterketa garrantzitsuenaren zena, taldea, sailkapen nagusiko 2. postuan iristen baitzen probara, 13 puntuko abantaila atereaz 3. sailkatuari. Nahiz eta lehen sailkatua matematikoki urrunegi egon, bigarren postua mantentzea beharrezkoa zen datorren denboraldiari begira.

Lasterketa hasieratik Alonso aurreko taldearekin mantendu

zen, postu bakarra irabaztearekin bere egitasmoa ziurtatuko baitzuen. Laugarren biran, aurrean zuen gidariak istripua izan eta lasterketatik kanpo geratu zen, Ibarra-koak lasterketa amaitsu besterik ez zuen egin behar.

Alonso bi talderen artean geratu zen handik aurrera. Lasterketa luzea egin zen amaierara arte, baina azkenik bosgarren postua ziurtatu zuen, txapelketako bigarren eskuratuz zortzi punturen aldearengatik.

Txapelketa bukatu ondoren, taldeak aurtengo zituen egitasmo guztiak bete ditu, iazko laugarren postua hobetzea zuten xede eta oraingo honetan txapelondordearen titulua etxeratzea lortu dute. Bestalde, txapelketa honetarako jasotako laguntza guztia eskertu nahi izan diete, Azkain motoak, TRT tailerrak, Gurutze Karrozeriak eta Quieropilotar.com-i «txapelketa honetarako ezin besteko laguntzarengatik eta Lekeitioko GGteam-Burdinolari hau dena posible egiteagatik».

# «Bost urte daramatzat eta bazen garaia emaitza on bat lortzeko»

**KOLDO ALONSO** » Moto gidaria

## I. GARCIA

Koldo Alonsok (Ibarra, 1979) bere helburua lortu du, Michelin Power Cup txapelketan aurreko postuetan emaitza.

### Zer suposatzen du bigarren egiteak?

Diru laguntzak jasotzen dituzu datorren urterako, horrelako lasterketarako. Michelin markak antolatzen duen txapelketa da eta normalean gurpilak ematen dizkizute lehiatzeko.

### Eta zuretzat pertsonalki?

Lortzen dudan lehenengo postu ona da txapelketa batean eta oso gustura nago. Bost urte daramatzat honetan eta bazen garaia emaitza on bat lortzeko. Aurreko urtean txapelketa honetan laugarren bukatu nuen eta aurtengo lehenengo hiru postuetan bukatu nahi nuen.

### Datorren urtera begira txapelketa honetan ariko zara?

Oraindik ez dago ezer ziurtatuta,



HITZA

rraitzeko erraztasun handia da. Gurpil batzuk ematen badizkizute dena errazagoa da. Kirol honetan normalean garestiena gurpilak izaten dira. Horrelako fabrika batek horrelako txapelketa batean sari hori ematea garrantzitsua da.

### Afizio bezala duzu moto lasterketan aritzea.

Bai, hala da. Estatu mailan korritzen da, baina maila amateur batean. Talde profesionalak ez dute parte hartzen.

### Beraz lasterketak prestatzeaz gain, finantziario ere bilatu behar duzu.

Urte osoan lotuta zaudete; urte hasieran zein motorrekin egingo duzun pentsatzen hasten zara, piezetan eta materialetan pentsatzen, gero diru laguntzak lortu behar dituzu, txapelketan gertatzen diren aberiak eta erorketak konpondu... Eta txapelketa bukatzean datorren urterako pentsatzen hasi behar.

txapelketa guztiak bukatzen ari direlako eta datorren urtean ez daki-gu lasterketa hau antolatuko den. Baina ziurrenik egingo da eta parte hartuko nuke.

### Diru laguntzak izango zenituen gainera.

Espero dugun laguntza bada, ja-



Alcañizeko zirkuituan jokatu zen denboraldiko azken lasterketa. HITZA

# Oinez eta bizikletaz ibiltzera bultzatzeko erakusketa ikusgai da

## ERREDAKZIOA

Plazaola(n) Bizi zerbitzu berriarekin lotuta, Pedalkadak jasangarritasunerantz erakusketa ibiltaria jarri dute martxan Plazaola Partzuergo Turistikokoek. Zenbait egunetan, Lekunberriko geltokian ikusgai egon ostean, orain eskualdera ekarriko dute. Astelehenetik aurrera, eta aste guztian, Leitzako udaltxeko Batzar Aretoan egongo da jarrita. Ondorengo orduetan

egongo da zabalik: astean zehar 09:00etatik 20:00etara eta asteburuetan 10:00etatik 14:00etara.

Erakusketa elebidun hau, «desplazamenduak oinez eta bizikletaz egitera bultzatzeko asmoz» dago eginga, era horretan «motor-dun mugikortasuna txikituz». Azken batean, biztanleria sentsibilizatu nahi da, kutsadurarik, kerik, eta soinu-rik gabeko mugikortasun jasangarria lortzeko asmoz.

## Eskuratu Gipuzkoako natur eremuetako mapen bilduma DOAN!

Jaso **urriaren 3an BERRI**arekin etorriko den **kartilla**, eta bete hurrengo egunetan argitaratuko ditugun kupoiekin.

10 liburuxka:

4 parke natural:

Aiako Harria, Aizkorri-Aratz, Aralar eta Pagoeta

3 biotopo:

Leitzaran, Iñurritza eta FLYSCH Deba-Zumaia

Parketxe sareak • Talaiabidea

Ibilbide irisgarriak: Larritz eta Arantzazu

**Bakoitzean hainbat ibilbide + guztia bilduko duen zorroa**

gizarte  
**kutxa**

**GIPUZKOA**  
zurekin, aurrera.

AUKERA EZAZU,  
BIZI EUSKARAZ  
**berria**

www.gipuzkoamendimendi.net



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**

**BERTAKO**  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leizaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
Euskarari



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Jaiak

■ **Irura.** San Miguel jaien baitan, Bikoteen Eguna ospatuko dute gaur. 11:00etan Haur parkea Loatzo kalean; 13:30ean bikoteen dantza-soka; 14:30ean bikoteen bazkaria Aizpurua jatetxean; ondoren musika dantzagarria (ludoteka zerbitzua egongo da bazkarira joaten diren gurasoen haurrentzat); 16:00etan haur parkea eta puzgariak Loatzo kalean; 18:00etan *Luma Gorri* haurrentzako dantzaldia San Migel Plazan Txorromorro taldearen eskutik; 19:30ean kale antzerkia *Camping Renove* antzez-lana Trapu Zaharrak taldearen eskutik; 23:00etan kontzertua Lain taldearekin; 24:00etan Herensugea erretzea eta ondoren dantzaldia Haizama taldearekin.  
■ **Ugarte.** 11:00etan gaztetxoaren pilota partidak. 12:30-14:00 eta 15:30-19:00, puzgariak eta ohe elastikoak. Arratsaldean zehar zaldian ibiltzeko aukera. 18:00etan, txokolata bizkotxoekin. 19:30ean

bertso poteoa Julio Soto eta Bixente Gorostidiarekin. 21:00etan, Zahagi-ardoa. 22:30ean, Ansorregi eta Larrañaga trikitilariak. Atsedeanaldian ikusizun bitxia.

### Ikuskizunak

■ **Tolosa.** 17:00etan, Leidorren, Txirri, Mirri eta Txiribiton Junior pailazoan *Katxurri Miliputxi*.

### Zinema

■ **Tolosa.** Leidor aretoan *Step up 3* haurrentzako filma 19:30ean eta *Madres e hijas* filma 22:30ean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Moraut, R. Zaballarreta, 1. 943 67 36 49.  
■ **Betelu.** Carrillo Ruiz, A. Kale Nagusia, 5. 112.  
■ **Irurtzun.** Mutiolo Martirena, A. San Martin, 5. 948 50 01 05.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



## Buruhandi eta erraldoien jaiak

**IRURA** ■ Bikoteen Eguna izango da gaurkoa Irurako San Migel jaien baitan. 13:30ean bikoteen dantza-soka dantzatuko dute eta ondoren bazkaria ere egingo dute. Arratsaldean zehar ere ekitaldi ugari izango dituzte, gainera; haurrentzako dantzialdia, kale antzerkia Trapu Zaharrak taldearen eskutik, Lainen kontzertua... Atzokoan ere izan zen zeregina eta besteren artean, kalejira egin zuten buruhandien eta erraldoien laguntzarekin. E.MAZ



# SARIDUNAK

harpidedunen  
**TXOKOA hitza** info

## ① IKASTAROA

Groseko indarra surf eskolak eskeinitako **surf ikastaroa**  
HITZA jarriko da irabazlearkin harremanetan



INAZIO AGIRRE ARREGI  
(TOLOSA)

## ③ SARRERAK

Txindokiko Itzala parkerako **bi sarrera pare**  
www.txindokikoitzala.com  
info@txindokikoitzala.com

JOSUNE AGIRREZABALA ZUBILLAGA  
(TOLOSA)  
LURDES OIARZABAL IRAZUKI  
(IBARRA)

HITZA jarriko da irabazlearkin harremanetan

## ④ ANTZERKIAK

Agerre Antzerki taldearen **DOLTZA** lana ikusteko sarreak

MARIA JESUS GALARZA ARREGI  
(IBARRA)  
AMAIA BALERDI TOLOSA  
(TOLOSA)

Txirri, Mirri eta Txiribiton Juniorren **Katxurri Miliputxi** ikusteko

MIRARI MENDIZABAL MAIZA  
(ALEGIA)  
JUAN ANTONIO IRAETA ARZUAGA  
(IKAZTEGIETA)

## ② LIBURUA

Pedro Mari Otañoren  
liburuaren 15 ale



LEO ALTUNA AMUNDARAIN (AMEZKETA)  
J.B. ARANZABE ABALTZISKETA (TOLOSA)  
KARMEN IRAETA ARSUAGA (TOLOSA)  
GARBIÑE IRIARTE IRIBAR (TOLOSA)  
AMAIA LARRARTE ZABALO (VILLABONA)  
INAXIO AGIRRE ARREGI (TOLOSA)  
ILDEFONSO IZAGIRRE SAN SEBASTIAN (TOLOSA)  
EDURNE BENGEO ANSA (TOLOSA)  
RAMON URKIZAR OLARIAGA (BERROBI)  
AITOR BENGEO ANSA (TOLOSA)  
OIHANA AGIRRE IRAETA (TOLOSA)  
M<sup>o</sup> ANGELES EZEIZA TAPIA (TOLOSA)  
MARI CARMEN ESNAOLA ZUGASTI (TOLOSA)  
TXARO FERNANDEZ GONZALO (IBARRA)  
ANDRES ARREGI ZINKUNEGI (VILLABONA)

Saridunak HITZAren Tolosako  
bulegotik pasa

Sarrerak leihatilan harpidedun txartelarekin